

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

93/2018 Foru Agindua, martxoaren 6koa, interes publikokotzat jotzen duena “Zuhaiztien Autodidakta” proiektua izeneko jarduera, . Axpuru herrian gauzatzea, Donemiliagako udalerrian

AURREKARIAK

Mikelatsetan Kultur Elkartek eskatu du “Zuhaiztien Autodidakta” proiektua izeneko jardueraren interes publikoa deklaratu dadin; jarduera Axpurun da gauzatzea, 4. poligonoko 670 lurzatan, Donemiliagako udalerrian, lurzoru urbanizaezin gisa sailkatu eta babes bereziko 1. gune gisa kalifikatutako lursailean.

Donemiliagako Udalak espedientea igorri du ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, agintzen duen baimen izapidea betetzeko, udal arkitektoak jaulkitako txostena erantsiz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Sail honek eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera.

Sektorean aplikatu beharreko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoko adierazten dituen zuzkidurek, ekipoei eta jardunek baino ez dute lekua lurzoru urbanizaezinean, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Gainera, hala izanda ere, foru aldundiak interes publikokoak direla adierazi behar du ebazpen bidez, hogeiei eguneko jendaurreko izapidea bete eta gero.

2018ko urtarrilaren 18an, espedienteari hasierako onarpena eman zion foru agindua eman zen, eta ALHAOra bidali zen argitara emateko. Halaxe egin zen 2018ko urtarrilaren 31n (13. zenbakian). Alegazioak aurkezteko emandako 20 eguneko epean ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Mikelatsetan Kultur Elkartek sustatzaile gisa aurkeztutako txostenetik ondorioztatzen denez, proiektuaren xedea da:

- Naturan leku bat sortzea, hezkuntza aktiboan, permakulturan eta neuro-arkitekturan oinarritua.
- Haurrei eta helduei laguntzea garapen prozesuetan.
- Bizitza prozesu biologikoak ikertzea eta esperimendatzea hainbat arlotan.
- Hazkuntzaren, begirunezko lagun egitearen eta abarren inguruko jarduerak egitea.
- Nazioartean eredu izatea pertsona eta naturaren arteko garapen armoniazkoaren arloan.

Irabazi asmorik gabeko elkarte da Mikelatsetan Kultur Elkartea, eta hainbat hezkuntza proiektu garatu ditu. Harne jarduera tamaina txikiko instalazioetan gauzatzea da asmoa.

Apirilaren 8ko 10/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko landa ingurunearen garapenarenak, hau xedatzen du 1. artikuluan:

“Lege honi dagokionez, hau da landa ingurunearen garapena: Euskal Autonomia Erkidegoan landa inguruko erkidegoak mantendu eta indartzera zuzentzen den prozesua, bertako kultura eta bizimodu propioen artapena bultzatzen duena, biztanleen bizi kalitatea hobetzera jotzen duena. Landa inguruko biztanleek, prozesu horren onuradun nagusiak diren aldetik, biziki parte

hartuko dute, inplikaturiko gainerako agente publiko zein pribatuekin batera, gauzatu nahi duten garapen motaren definizio eta lorpenean. Prozesu horrek, halaber, garapen endogenoa bultzatu behar du, baita landa inguruko bizilagunen eta gainerakoen arteko integrazio eta elkarreraginerako lagungarri izan ere, eta landa inguruko erkidegoen susperketa ekonomiko eta soziala lortzeko hartzen diren neurri guztiek paisaiaren, naturaren eta ingurumenaren artapenerako bermea izan behar dute.”

Aurrerago, lege beraren 2. artikuluko g paragrafoak ondokoa zehazten du Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako politikaren helburu nagusi:

“Landa inguruetako natur, histori, kultur eta hizkuntz ondarea berreskuratu, artatu, garatu eta zabaltzea.”

Mikelatsetan Kultur Elkarateak abiarazi nahi duen jardunak bete-betean egiten du bat apirilaren 8ko 10/1998 Legeak zehaztutako landa garapen politikaren helburu nagusiekin; eta ez dago zalantzarik jardun hori landa eremuan kokatu behar dela, naturarekiko kontaktua funtsezko osagaia duen jarduera den aldetik.

Interes publikoari dagokionez, aipatutako legeak ez du aipatzen xede den helburua lortzera bideratutako proiektu eta jardunak interes publikokoak diren ala ez. Dena den, lege horren hirugarren xedapen gehigarriak xedatutakoari jarraiki, jardunaren interes publikoa ondorioztatu daiteke, zeren eta adierazten baitu landa garapenerako programei buruzko proiektu horiek onartzeak berekin ekarriko duela haien erabilera publikoa adieraztea, nahitaezko desjabetzapen legearen ondorioetarako.

Alde horretatik, bada, aipatu beharra dago proiektuaren asmoa dela kokatzekoa den landa ingurunea baloratzea, kultur eta ekonomia dibertsitatea eskainiz LAUTADA LGPko proiektu berritzaile gisa eta Donemiliagako Udalarekin eta Aguraingo Kuadrillarekin elkarlanean.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenena. Interes publikokotzat jotzea, 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoari jarraituz (2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa), “Zuhaiztien Autodidakta” proiektua izeneko jarduera, Axpuruko 4. poligonoko 670 lurzatian gauzatzekoa dena, Donemiliagako udalerrian, lurzoru urbanizaezintzat sailkatutako eta babes bereziko 1 zonatzat kalifikatutako lusailean, Mikelatsetan Kultur Elkarateak sustatu eta Donemiliagako Udalak izapidetutako espedientearen arabera.

Bigarrena. Adierazpen horrek ez du kentzen proiektua gauzatu aurretik legeak agintzen duen udal baimena eskuratu beharra, ez eta udala erabaki hau edo bestea hartzera behartzen ere.

Hirugarrena. Interes publikokotzat jotzeak ez du administrazio bidea amaitzen, ezta horrek aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsioa aurkeztearik; dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, Donemiliagako Udalak baimena emateko edo ukatzeko ebazpena ematen duen arte. Orduan aurkeztu ahal izango da ebazpen horren aurkako errekurtsioa.

Gasteiz, 2018ko martxoaren 6a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO